

## » TELEGRAMA

“Eta orain zer egingo dut nire begiekin?”. Galdera horri erantzun nahi dio Tabakaleran uztailearen 21ean antolatu duten **Imágenes después del horror** tailerrak, zeinean gogoeta egingo den indarkeriaren ondorengo egoeraz *STOP* Gernikako Astran aritzen diren kolektiboen eskutik **Astra iluntzeak** antolatzen ari dira ekain amaieratik: uztailearen 19an eta 26an dira hurrengo hitzorduak *STOP* Itsasuk 22. aldiz hartuko du **Errobiko festibala** non nazioarteko musikariek topo egingo duten giro lasaian eta esperimentatzeko aukerarekin: uztailearen 20tik 23ra da zita *STOP*

## » DISKOA

## Elkartasun berpizte saioa



### La casa magnética

EL CORAZÓN DEL SAPO

Stop Control Antirecords

Filferro Records



Iker Barandiaran

@IkerBarandiara

Disko honek hamazazpi urte ditu, baina berrargitaratu berri dute biniloan, inoiz kaleratu ez zen formatuan, diskoa kalera-tu eta gutxira taldea desegin zutelako. El Corazón del Sapo taldeak Aragoian du jatorria, baina Euskal Herriarekin bat egin eta berehala bertakotu ziren. Hain zuzen ere, hamazazpi urte lozorroan egon ostean bueltan dira eginbehar bakarrarekin: Hatortxu Rock jaialdiaren edizio berezi honetan beraien alea jartzea.

El Corazón del Sapo 90eko hamarkada aberatsarekin estu lotzen dugu askok. Ipar gabe edo ideia faltan zegoen Espainiako Estatuko hardcore-punkari freskotasun itzela ekarri zion taldeak agertokian, musika eskaintza energetiko, konprometitu eta irudimentsuarekin.

*La imaginación contra el poder* estreinako lanetik abiatuta taldeak begi eta belarri asko zabaldu zuen. Eta, jakina, azkar baino azkarrago Espainiako Estatuan musika eszena indartsuena eta underground azpiegitura sendoena zuen Euskal Herriak besoak zabalik hartu zuen taldea. Haiek ere etxeko sentitu ziren eta askotan izan zen taldea gure artean; poliki-poliki hemengo egin zen hein handi batean.

Hamarkada hura oso aberatsa izan zen, herri ia guztietan gartzetxeak zeu-

den, lan egiteko gogoia eta moduak kontzienteagoak eta eraikitzaileagoak ziren eta azpiegitura sendoak eraikita zeuden: irrati libreak, fanzineak, diskoetxe independente batzuk, banaketa alternatibo sareak, anti-desarrollismo izaera, sormena barra-barra eta musika zale ugari, besteak beste. El Corazón del Sapo ere esentzia hori zuen (eta du) barrerean. Horren erakusle, taldeak izan zuten ibilbidea eta izaera. Gainera, hamarkada hark iraganeko punk vs heavy dikotomia (dagoeneko antzua zena) apurtu eta musika estilo zein gustuen irekiera itzela ekarri zuen berarekin batera. Hala, estilo askoren arteko mugek eztanda eginda, irekierak fusio aberatsa ekarri zuen, musikari ere on egin ziona. El Corazón del Sapo horren adibide argia izan zen.

Gerora Kuraia, Matxura eta gaur egun Estricalla gidatzen duen Fer Apoak El Corazón del Sapo taldean eman zituen lehen pausoak desegin zen arte. Bertan eskola zaharreko hardcorea, melodia barra-barra, letra larriz idatzitako poesia, metal zipriztinak eta rap-a landu zituzten maisuki, erritmo aldaketa, gitarra lerro sarkor eta esentzia berezkoarekin. *La casa magnética* grabatu zuten azken diskoa ere horren erakusle da. Eta, aipatu beharra dago, berrargitaratutako diskoaren irabaziak Errefuxiatuen aldeko Zaragozako plataforma laguntzeko bideratuko direla. ■



El Corazón del Sapo taldea, Ikor Kotxen argazkian.